

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko abuztuaren 4a


Egunkaria

Gehigarri honetan



Ziga • Asteazkenean, besten bezperan, baztan-zopak zerbitzatuko dituzte herriko ostatuetan
Jesus Mari Bengoetxea • «Kultur ekintzek une gozoa bizi dute Nafarroan»

Beireko eskulangintza zentroa




• IÑAKI VERGARA

Gaur arratsaldean Beire aterpeko eskulangintza zentroa inauguratuko dute. Bertan, Nafarroako erdialdean, bultzada eman nahi diote eskulangintzari.

Horretarako, erakusketa aretoa eta hiru lantegi muntatu dituzte. Geroago laugarren lantegi bat eta eskulanak saltzeko denda paratu nahi dituzte. Hasi berriak dira zeregin horretan, baita ilusio handiz hasi ere. Gaur, zentroa inauguratzeaz batera, Pilar Compains, Eukeni Callejo eta Concha Zilbeti zeramisten erakusketa zabalduko dute.



• IÑAKI VERGARA



• PILAR COMPAINS



Pirinioa ● Herriak ezagutuz

Pirinioetako Partzuergo Turistikoak doako bisita gidatuak antolatu ditu udarako

**Nafarroako
Pirinioetako
Partzuergo
Turistikoak iragan
uztailaren 22an abiatu
zuen Gure herriak
ezagutu izeneko
programa. Bisita
gidatuen bidez,
Pirinioetako ondare
naturalaz gain, ondare
kulturala ere
ezagutaraztea du
helburu partzuergoak.**



Gure herriak ezagutu programak zenbait herritako —goian Luzaide, behean Otsagi— ondare naturala, kulturala eta historikoa ezagutaraztea du helburu. ● EGUNKARIA



Nafarroako zati hau bisitatzen duen turistak egiten du Pirinioen edertasunak erakarria. *Gure herriak ezagutu* programak herri horien gibelean dagoen historia, kondairak eta kultura berreskuratu nahi ditu. Horretarako, gidari baten laguntzaz, herrian barna ibilbide ttiki bat egiten dute. «Erakutsi nahi dugu natur eremu ikusgarria ez ezik (basoak, ibaiak, arroilak, gunoak, babestuak...), historia, arte eta kultur ondare aberatsa ere badugula», adierazi dute partzuergoko kideek. *Gure herriak ezagutu* programak uda osoan iraungo du, irailaren 17a arte.

Urteak dira bisita hauek antolatzen dituztela, eta beti izan dira doan. Aurten nobedade ttiki bat ekarri dute. Bisita gidatu hauek parte hartzeko gonbidapena behar da, eta gonbidapen hori eskuratzeko partzuergoaren baitan dauden establezimien-

duetara jo behar da; 165 bat dira: hotelak, landetxeak, tabernak, jatetxeak, dendak, eskulangileak eta ekitaldi enpresak. Hortaz, apika, doan izate hori zalantzan jarri beharko litzateke. Izan ere, leku horietara joaten direnak produktu edo zerbitzuren bat erosi ohi dute. Dena den, behin gonbidapena eskuratu gero, bisita gidatu guzietara joan daiteke. Aldiz, gonbidapena ez duenak 200 pezeta ordaindu beharko ditu bisita bakoitzeko (8 libera).

Partzuergoak borts eskualdetan banatu ditu bisita gidatuak: Erronkarin, Zaraitzu-Nabaskozen, Aezkoa-Orotz Betelun, bortuz bertzalderako

bidean eta Pirinio aurreko herriak. Inguru bakoitzean zenbait herri bisitatzen dira arratsaldeko 7etatik edo 8etatik aurrera.

Borts eskualde

Erronkari eskualdean, izen bereko herrian, Gaiarriren omenez Mariano Benlliurek egindako brontzezko mauso-

leoaz gain, San Esteban eliza eta XII. eta XIII. mendeetako etxeak bisitatzen dituzte. Uztarroten, gidariak, besteak beste, 1738ko organo barrokoa ikustera eramaten ditu bisitariak. Izaban zubi multzoa, armari eta etxe arku gotikodunak eta Pirinioetako eraikinak ikus daitezke. Urzainki, Burgi eta Bidan-

koze dira eskualde horretan bisitatzen dituzten bertze herriak.

Zaraitzu-Nabaskoze eskualdean azken mendeetako bizimodua islatzen da herrietako karrika eta etxeetan. Otsagik harzola, Pirinioetako etxeak, sarreran arku gotikoa duten eraikinak eta Fortuño, Mancho eta Arrosako jauregiak ditu. Ihaurretan, herririk garaienean, gidariak 1880ko sute historikoaren berri ematen du; sute hark ia herri guziaz deuseztatu zuen. Ezkarozen lau isuriko malda handiko teilatuak ikus daitezke, eta Espartzan, hiru arkuko erromatar zubi ederra.

Bestalde, Aezkoan Orbaiztetako arma lantegia ikus daiteke. Lantegia XV. mendean eraiki zuten, eta 1884an abandonatu zuten, XIX. mendeko gerren ondoren. Inguru horretan Hiriberri herri ederra ere bisitatzen dute gidariaen laguntzaz.

Pirinio aurreko eskualdean, Irunberri eta Urraulgoiti herrietara joaten dira.

Azkenik, bortuz bertzalderako bideko eskualdean, Donejakue Bideko zatitxoan, Luzaide, Auritz eta Larrasoña bisitatzen dira. Karlomagoren

inguruko kondairek betetzen dute Luzaideko historia, horien berri ematen du gidariak.

Bisiten ibilbide eta ordutegi zehatzak jakin nahi duenak 948-764326 telefonora dei dezake, edota epirineo@arrakis.es helbide elektronikora idatzi.

→ Daniel Urrutia

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Bortizkeria indartuta, muturretakoek bereari eutsirik, giro nahasian murgildurik aurrera doakigu uda parte. Beldurra eta mesfidantza batzuen begietan, negarra, gorrotoa ere nabarmen zuzeneko zaplastada jaso dutenengan, haserrea, nazka, kezka beste buru askotan. Denon esperantzak hautsiak. A ze egoera itogarria!!!! Etekinik ateratzen al du hemendik inork? Ez al du ba herri honek beste ezer merezi? Errua besteei leporatzearekin aski dugu

Galderak

lasaitzeko? Ez dugu denok hemen bertan elkarren ondoan bizitzeko tokia topatuko nahiz eta pentsakera desberdinekoak izan? Ez al gara gauza pentsakera soilen gainetik gure lagunentzako ontasunaz aberasteko? Ez al da aniztasuna edozein herrirentzat aberasgarri? Elkarrekiko begirunea bideratzeko aukerari itxiko al diogu ataria?

Errealitate krudela eta jasangaitza gauditu ezinik, utopia, ametsetan sartu beharko gara berriz?


Normalizat hartu behar al ditugu guk geuk edo gure ondokoek egunotan jasaten ditugun-dituzten irainak, beldurrak, mespretxuak?

Ez dut nire kontzientzia lasaitu nahi. Ongi dakit zer naizen eta zer nahi dudana. Nire eskubideak defendituko ditut eta baita besteena ere nahiz eta ideoloji mailan nire gustukoak ez izan. Denok auzo eta herri berean BIZITZEKO eskubidea aldarrikatzen dut. Ez diot gorrotoari tarterik utzi nahi.

Ziga • On egin!

Baztan-zopak besten hasiera iragartzen dute, eta Zigakoak omen dira onenak

Herriko besten hasiera iragartzen duen ekitaldirik nagusietakoa baztan-zopak dira. Zigako herrian abuztuaren 9an elkartuko dira herritarrak eta kanpotarrak Etxezuria eta Indakoa ostatueta baztan-zopak jateko, besten bezpera egunean, gainontzeko herrietan bezala.



Adituek diotenez, Zigako zopak dira Baztango gozoenak. Ardi burua, hezurra, barazkiak, pikantea eta azafraia; besterik ez da behar.

RAKEL GOÑI

Baztandarrak beti tripa-zain ederrak bezala eza-gutu izan dira. Ospatu beharreko gauza gehienak mahai baten inguruan egiten dira. Ezagunak dira inguruko herri gehienetan egiten diren zikiro jateak, herri bazkariak eta azken urteotan arrakasta handia duten gosariak. Noski, beti besta eder bat egin ondotik. Eta horietan baztan-zopak leku berezia dute.

Jakitunek diotenez, Zigako zopak Baztanen diren goxoena dira. Dena den, inori muzin egin gabe, oinarrian zopak antzerako osagaiak dituzte: ardi burua, hezurra, barazkiak, pikantea eta aza-

fraia. Azkeneko bi osagaiak bukaeran ematen dira. Besteek, gutxienez, hiru ordu egon behar dute egosten. Bukaeran ogi zaharra saltsan bustitzen da eta mahaira ateratzen dira zopak.

Horrez gain, gisatua eta xuri ta beltza janen dute Zigara joaten direnek. Kontxita Goietetxe Etxezuriako etxeoandrea betidanik egin izan ditu zopak Zigan. Adi-

narekin, alabari erakutsi zion baztan-zopak egiten. Kontxitak dioenez, «ez dago sekretu handirik, mantso-mantso egosi behar da dena, zapoak nahas daitezten. Osagai guztiei ardiki gehiago botatzen diegu, behar bada». Hamar egun lehenago hasien dira dena prestatzen eta, diotenez, sobera lana da Etxezuriako familiarentzat hainbeste lagunentzako jana

prestatzea. Hala ere, ohitura jarraitu nahirik, pozik dihardute egunean guztia prestatzen, azkenean denak tripa-bete irribarrez atera daitezten.

Etxezuria ostatuan 125 lagunendako tokia egongo da. Indakoan, ordea, 30 bat bilduko dira. Mertxe Aizpuru (Kontxitaren alabak) dioenez, «kanpotarrak beti daude baztan-zopak probatzeko prest, baina aunitzentzat sobera fuerteak dira». Asko dira urtez-urtez herri honetara zopak jatera etortzen direnak. Hori dela eta, gogorik izanez gero, hobe da lekua alde aurretik hartzea.

Urtean, neguan batez ere, ez dago zopak dastatzeko aukera handirik. Hori dela eta, ostatu askok busti izeneko platera zerbitzatzen dute janaurreko bezala. Bustiak edozein saltsatan (zopa, gisatua) «bustitako» ogi zatiak dira. Dena den, Zigan igandero, meza ondoren, baztan-zopak prestatzen dituzte Etxezurian. «Noizbait ezin izan ditugu egin eta jendea erabat koleratu zaigu; ohitura bat da, eta herriari lotzen gaitu», dio barrezka Mertxek.

Aspaldidanik baztan-zopak bailarako mugak igaro zituzten. Besteak beste, abuztuaren 10ean, Sunbillaiko kanpalekuan herriko bestak direla eta prestatuko dituzte.

→ Rakel Goñi



herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Zizkerte taldearen lana Arbizun

Arbizun aurten sortu duten Zizkerte Kultur Taldearen inguruan egin du **Guaixe** aldizkariak bere azken zenbakiko erreportaia. Elkartearen izenean Juan Carlos Reparaz lehendakaria mintzatu da Guaixeko kide Maider Betelurekin, eta ondokoak dira hark errandakoak: «Ez daukagu zerikusirik beste taldeekin, autonomoak gara. Kultur asuntuan zerbait egin behar zela eta... gaian interesa genuenak lehenengo bileratxo bat egin genuen, zer egin zitekeen ikusteko. Honela, astelehenero biltzen hasi ginen eta gauza forma hartuz joan zen. Nahiz

eta Arbizu herri txikia izan, gauza asko egin zitekeela ikusi genuen. Hala, taldeari izena jarri behar geniola erabaki genuen eta taldea legezatu behar genuela, estatutuak egin eta helburuak zehaztu behar genituela. Zizkerte Kultur Taldea izena jarri genion gure taldeari, Zizkerte Arbizuko dermio bat delako eta izena gustukoa genuelako».

«Orain arte Arbizun kultur asuntuan ez da sekula ezer egin eta gure helburua urte guztian jendeari zerbait ematea da. Aldizkaria, erakusketak, tailerrak... miña gauza, mila ideia dau-

de airean, eta jasotzen baditugu, eginen ditugu. Gauza hauek herria asko aberastu dezakete».

Oihan ederra aldizkaria plazaratzen hasi da Zizkerte taldea: «Aldizkari bat egiteari garrantzi handia eman genion hasieratik. Aldizkaria herri guztira iristeko modu bat da, eta herritik kanpo bizi diren arbizuarrei iristeko modua ere bai. Orain dela 15 urte inguru halako aldizkaritxo bat egin zen eta garaian arrakasta handia izan zuen. Taldean lan asko dago egiteko eta nahi duenak ateak irekita dauzka bertan parte hartzeko».

Sant Magí

Kataluniako herri txiki batean egon naizen bitartean segitu izan dut istorio hau. Berria, kristoren berri garrantzitsua —Diari de Tarragonan ezohizko lekua hartzen zuen—, Tarragonako «Ate Santua» ireki behar zutela zen, erabakia hartua zegoela, eguna ere aukeratua, poztekoa zela, bazela garaia atea irekitzeko eta abar eta abar, atea gora, atea beheara. Horrela jakin nuen mendeetan itxita egon den atea zela hori, erromatarren harresietan irekitako atea zela. Jakin dut beste izen bat ere bazuela aurretik, txikiagoa, apalagoa: «Gurdien Atea». Izen horrek adierazten duen moduan, atea gurdien pasabidea zen. Erdi Aroan egin omen zuten. Erdi Aroan Sant Magiren irudi bat paratu zuten bertan, eta, irudiarrekin batera, kapera moduko bat, zeinak, denborarekin, eliza txiki bat bihurtu zen. Atea, orduan, elizaren barruan gelditu eta harriz bete zuten. Erdi Aroko tradizioak dio hemendik atera zela ihesean Sant Magí giritinoa erromatarrek atzetik segika zituelarik. Sant Magí atera zen bai, baina Erromako gudariak bertan hil ziren, zeruko indar baten eraginpean. Hortik «Ate Santua»-ren bigarren izen hori.

Kasualitatez, bertan egon nintzen ireki zuten egun berean. Esan bezala, erromatarren harresiaren erdian dago, paseo ezin ederragoan, eta, «passeig arqueologic» horretan nengoe-la, txiripaz agertu nintzen nihan. Nire aurrean aurretik botatako paretaren puskak ikusi ahal izan nituen eta atearen lekuan, bi zuhaixken atzean, plastikozko beltzez estalitako Ate Santuaren zulo ireki berria. Jada atarian ez zegoen inongo zeruko indar berezirik (alkatea, artzapezpikua, arkitektoa eta langileak zuloatik igaro ziren, inongo minik hartu gabe). Beste aldetik, Sant Magik jaitsi behar izan zuen malda zegoen, malda latza, amiledgia izateko bi puntu gehiagorekin aski izango zuena. Sant Magí irudikatu nuen eskuak tunikari eutsiz, gonak gora, kristoren kolpeak hartzen, korrika bizian mendira egiten. Erromako gudariak —tipo azkarrak— ikusirik, nonbait, ate hartatik ezin izango zutela, ate nagusitik aterako ziren haren bila. Kontua da mendian harripatu eta lepoa moztu ziotela eremitari. ●



urda
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Eskulangintza aterpean

Gaur, arratsaldeko zazpitan, Beireko aterpeko eskulangintza zentroa inauguratuko dute

Beiren, Nafarroako erdialdean, bultzada bat eman nahi diote eskulangintzari. Horretarako, erakusketa aretoa eta hiru lantegi prestatu dituzte herriko aterpean. Geroago beste lantegi bat eta eskulanak saltzeko denda paratu nahi dute. Hasi berriak dira zeregin horretan, eta gaur, zentroa inauguratzeaz batera, Pilar Compains, Eukeni Callejo eta Concha Zilbeti zeramikarien erakusketa zabalduko dute.

BEIRE HERRIA NAFARROAKO ERDIALDEAN dago. Erriberriko gazteluak, Pitillasko aintzirak eta La Olivako monasterioak osatzen duten hiruki turistikoaren erdian. Beiren 130 plazako aterpe bat dago, eta horko zuzendari dugu Maria Jesus Rey anderea. Bera eskulangilea zen, ehunak egiten zituen, baina aterpeko ardurak direla-eta utzi egin zion. Hala ere, ehungailua aterpeko ganbaran zuten eta eskatzen zioten bakoitzean bisitariel erakusten zien.

Orain, gaur alegia, Beire aterpeko eskulangintza zentroa zabalduko dute, eta Reyk hiru lantegietako batean paratuko du bere ehungailua. Akaso, ehuna egitera animatuko da berri.

Feriak baino gehiago

«Eskulangintza zentroa makina bat jardueraren motorra izatea nahi dugu», dio Reyk. Erakusketa aretoa eta 25 metro koadroko hiru lantegi eraiki dituzte aterpean. Beste lantegi bat ere gehitu nahi diote, 40 metro koadrokoa. Kartoigintza, zurgintza eta ehungintza lantegiak dira gaur inauguratuko dituztenak, baina alda daitezke. «Nafarroan diren eskulangile mota guzietan lan egitea gustatuko litzaiguke», azaldu du Reyk. Eta gehienez ere urtebeteko kontratua eginen dute eskulangile bakoitzarekin, errota-zioa egitea nahi baitute.

Eskulangileen lanak saltzeko denda ere paratu nahi dute aterpean. Baita makina bat ekitaldi egin ere, hala nola erakusketak, ikastaroak eta jaiak. Hasteko, gaur erakusketa zabaldu dute Pilar Compains, Eukeni Callejo eta Concha Zilbeti zeramikari nafarrekin. Hilaren bukaera arte izanen da ikusgai. Eta abuztuaren 20an eskulangileen eguna ospatuko dute. «Dagoeneko hamar eskulangilek eman dute hona etortzeko izena», adierazi du Reyk. «Ez dugu azoka izatea nahi, jaiak baizik. Eskulangileen lana ikusiko da, baina horretaz landara, bizpahiru lantegi antolatuko ditugu jendeak zuzenean parte har dezan».

Rey zuzendariaren aburuz, feriak egitea baino zerbait gehiago eskatzen du eskulan-

gintzak. «Eskulangileek toki zehatz bat behar dute, baina ez egun bakar baterako. Hemen eskulangintza sektorea indartu nahi dugu, eraikinak eta inguruak eskaintzen digutena baliatuz».

Edozein eskulangileri dago irekirik Beireko zentroa. «Dena den, zaila da lantegia muntaturik duen eskulangileak hona ekartzea», erran du Reyk. «Baina beharbada batzuei interesatuko zaie inguru turistiko honetan zenbait hilabete egotea».

Trukea

Aterpekoak Nafarroako eskulangileekin izan ziren hizketan, eta 20-30en bat interesaturik agertu ziren. Iruñeko Arte Eskolakoekin ere

Tarsiciok estreinatuko du Beireko eskulangintza zentro berriko lantegietako bat, kartoizko irudiak egiten dituzten berak. Tarsicioren iritziz, zentroa bere lana ezagutarazteko «erakusleho aparta» da.

INAKI VERGARA

hitz egin zuten, eta interesgarria iruditu zitzaizkien hasi behar duen jendearendako. «Artisau elkarteekin eta artisauekin harremanetan egon nahi dugu jakiteko zer behar duten hona etortzeko», dio Reyk. «Guk eskaintzen dugu ikastaroak, ekitaldiak, erakusketak antolatzea eta propaganda egitea. Tokia uzten diegu eta eurek lantegia irekirik

mantentzeko konpromisoa hartzen dute, turistik hain lana ikusteko aukera izan dezaten. Eskulangileek badakite euren produktuak saltzeko jendea euren gura hurbildu behar dela eta ikusi nola lan egiten duten». Trukean, lantegiak erabiliko dituen eskulangileak espeziatzen ordaindu behar die aterpekoiei, hau da, eskulanen bat eman

Maria Jesus Rey, Beire aterpeko zuzendaria:



«Feriak egitea baino zerbait gehiago eskatzen du eskulangintzak. Eskulangileek toki zehatz bat behar dute, baina ez egun bakar baterako. Hemen eskulangintza sektorea indartu nahi dugu, eraikinak eta inguruak eskaintzen digutena baliatuz»

INAKI VERGARA



130 plazako jauretzea


BEIREKO ATERPEAREN ERAIKINA EZPELETAKO KONDEEN JAUREGIA IZAN ZEN BOST MENDETAN, harik eta 1895ean apaizgaitegi bilakatu zen arte. Horrek beste itxura bat eman zion, eta egun jauretzeako arrasto guti ikus daiteke. 1980an bi nekazarik erosi zuten, baina eraikina erabili gabe utzi zuten. 1988an Gaztelan Fundazioak lagapen kontratua sinatu zuen jabeekin jauretzea aterpetxe gisa

erabiltzeko. Eta aurtengo urtarrilaren 4az geroztik, aterpeko kudeaketa Ides Fundazioaren (ekonomia solidarioko ekimenak) gain dago. Orain landa turismoko zentroa da, eta horretan hiru jarduerara sartzen dira: aterpea, ingurumen hezikuntzarako zentroa eta eskulangintza zentroa.

Beirera normalean ikasle taldeak joaten dira, baina partikularrik ere joan daitezke. Taldeen kopurua, demografia dela medio, bere horretan gelditu da, baina geroz eta partikular gehiago joaten dira, batez ere Bartzelona, Valentzia eta Madrildik. Aterpeak egun 130 plaza ditu, baina eraikineko pasabide eta gela anitz ez dira erabiltzen. Gogoaren eta diruaren arabera zaharberritu eta irekiko dituzte eraikineko zati gehiago.



INAKI VERGARA



INAKI VERGARA

Pilar Compains

ZERAMIKARIA



INAKI VERGARA

«Zentroak diseinuzko eskulangintza bultzatu beharko luke»

BEIREKO ESKULANGINTZA ZENTROARI KALITATEZKO HASIERA EMAN NAHI IZAN ZION Pilar Compains Tafallako zeramikariak. Horretarako, Artisautza Artearen I. Jardunaldiak antolatu zituen zeramikaren inguruan. Baina berak eman behar zuen ikastaroa bertan behera gelditu da, jende gutik eman duelako izena.

■ Zergatik gertatu dela uste duzu?

Beharbada goizegi zen. Oso egitarau interesgarria zen, modu profesionalen egiteko modukoa, eta hitzaldiak ematera etorriko ziren zeramikariak entzuteak dira. Kalitatezko hasiera zen. Baina, beharbada, jendeak oraindik ez zekien Beiren eskulangintza zentroa dagoela. Akaso, hilabete batzuk edo urtebete pasatu eta gero egin izan bagenu... Beharbada arinegi ibili gara. Beste batean saiatuko gara berri.

■ Nola ikusten duzu eskulangintza zentroaren sorrera?

Oso ekimen ona dela uste dut. Eskulangintza Nafarroan geldirik dago, eta zentro honek nolabaiteko bultzada eman diezaioke; dinamismoa, gauza berriak sortzea, erakusketak egitea, lehiaketak. Bestalde, zentro honek dituen abantailak bat da artisaua hemen geldi daitekeela lo egiten. Baina uste dut lantegia muntatua duen eskulangilea ez dela hona etorriko. Zentroa gehiago izanen da hasten ari den jendearendako.

■ Zentro honek eskulangileak erakarriko ditu?

Zaila da jakitea ea benetan jendeak nahi duena hau ote den, ea eskulangilea horrelako gauza baten zain ote zegoen funtzionatzen hasteko. Lekua oso handia da, ezaugarri aproposak ditu bertan gauza interesgarriak egiteko. Dena den, lantegia bertan izatea baino zerbait gehiago izan behar du zentroak. Topagunea izan behar du, diseinu, marketin, merkataritza eta bestelako ideiak trukatzeko. Kontua da ez egitea betiko eskulangintza tradizionala, ferietan ikusten den hori. Hori eraldatu egin behar da. Diseinuzko eskulangintza egin behar dugu, gaurkotasan handiagokoa. Eskulangile zein bisitariendako erakargarria litzateke zentroa abangoardiakoa izatea. Eskulangintza ezin da tradizioan gelditu, aitzina egin behar du. Ezin dezakegu aitatxi-amatxien lana egiten jarraitu. Gaurkotasuneko gauza ederrak egin behar ditugu.

edota konponketaren bat egin. Gauza bera erakusketa aretoa erabiltzen dutenekin. Eta dendan, aterpeak saldurikoaren %35 eskuratuko luke. Aterpea kudeatzen duen Ides fundazioko lehendakariak azaldu duenez, eskulangintza zentroa muntatzea orotara 11 milioi kostatuko zaie, %30 Erdialdeko Partzuergo Turistikoak ordainduko du. Gainera, aterpeak berak.

Eskulangintza zentroko lantegietako bat estreinatuko duen lehena Tarsicio da. Aita-txarka (kartoizko artisautza) bikoteko kidea. Kartoizko irudiak egiten ditu, eta abuztu osoa emanen du Beiren. Oraindik ez daki

non egingen duen lo, baina aterpean lo egitea nahi izanen balu 1.500 pezeta ordaindu beharko litzuke, mantenu osoan. Eskulangileei egiten dieten prezio berezia da.

«Hagitiz interesgarria iruditzen zait ekimen hau, eskulangileek jakin behar dute zer duten hemen», adierazi du Tarsiciok. «Ez baita nolana hiko gauza lantegia izatea, erraztasun guzietan. Gainera, hemen turismoa gora doa, publizitatea hemendik egin daiteke, lana ezagutarazteko erakusleho aparta da».

→ Asier Azpilikueta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Urkizaren azken liburuaz

Julen Urkiza karmeldar ondarrutarrak azken bi mendeotako bertso eta olerki argitaratuen bibliografia oparoa eman berri du karrikara liburu mardul eta erabilgarri asko batean



Lehen eta behin, honako liburua definitzen duen adjektiborik zehatzena esan behar badugu, huraxe, zalantzarik gabe, aberatsa litzateke, izan ere, luxozko lan baten aurrean baikaude, berri iturri emankorra, zabala oso eta neurri batean, tamalez ordea, oraino handiegia datorkiguna. Bego berriz, bada, Urkizak egindako lana tresna baita, eta tresnak behar direnean erabiltzeko baizik ez baitira. Egia esan, euskal bibliografiaren munduan beharrezkoa egiten zen Urkizak egin duen lana bezalakorik, nahiz eta Jon Bilbaoren Eusko Bibliographia saila luzanga badugun. Alabaina, ez da dudarik liburu moduan agertu ez diren hainbat eta hainbat euskal bertso eta olerki hor-hemenka sakabanaturik geneuzkala ahantzirik, eta lehenbizi hauen berri eduki eta segituan ikertzeko Urkizaren liburua ezin utzizko bihurtu da argitara orduko.

Urkizak egin duen lana zinez harrigarria da. Pasa den urtean atera duen liburu hau orain arte taxutu duen lan orhartzaile bakarra ez baita. Duela urte gutxi euskal elizaren bibliografia eta historia eman zuen argitara, egun humanitateen inguruan gaia Euskal Herrian kokatzen duen edozein ikerketatarako erabilgarri suertatzen den liburua. Gezurra dirudi nola hain denbora laburrean horren bi liburu oparoak idatzi ahal izan dituen.

Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografia liburua ontzeko Euskal Herri osoko 450etik gora argitarapenen orrialdeak hostokatu ditu Urkizak arreta handiz. Egia esan, gehiago izan dira ikuskatu zituenak, alabaina, hauen izenburuek ziotenaren kontrara, hainbatean ez zuen euskal bertsoarik topatu, eta hortaz, liburuaren ez da hauen aipamenik ematen. Bestalde, badira salbuespen azalgarriak, esaterako, *El Dia-*

rio Vasco egunkariako euskal bertsoak ez ditu jaso gehienak Basarrirenak baitira, eta Basarriren bertsook jada karrikara atera ziren Antonio Zavalaren Auspoa bilduman 1992an Nere bordatxotik izenburupean.

Ez dira guztiak loreak izan, aldiz. Bibliografia hau Interneten egonen da, jada ez badago behinik-behin, eta ziur gaude liburuak dituen hutsu-

la eta, Gurbindo, Alexander Tapia, Irular, Oianondo, eta bestek atera olerki abondo ez dira bibliografian agertzen. Berdin gertzen da *El Pensamiento Navarro* edo *Diario de Navarra* egunkariak gerra aurretik zein ondotik ateratako euskarazko sailekin, eta hortaz, Agerre, Lindatxikia, Lepazar eta bestek eginiko bertsoen berri galarazten zaigu. Bestalde, badira nahaste ertzo batzuk zenbait izenekin. Adibide bat aipatzearen, hortxe dugu Alexander Tapia Perurena alde batetik eta Iruña'tar Alexander bestetik, bi olerkari ezberdin bailiran, pertsona bera denean. Edozein modutan ere, jakin badakigu zenbat arazo suertatzen diren gerra aurre-

tiko euskal idazle gehienek erabilitako goitzenak ba-

koitza zeini dagokion asmatzeko, askotan idazle bakar batek ezizen bat baino gehiago erabiltzeko ohitura zuelako —esate baterako, Agerreren *Gurbindo*, Zirt zein *Jurgi* edota Aingeru Irigarainen *Apat Etxebarne* zein *Iruñar*—, eta beste askotan, goitizena hain baitzelako ilun ezen tamalez huraxe baizik ez zaigun iritsi —esaterako *Lepazar*, *Lindatxikia* edota *Oianondo*—.

Aipatu kontu txiki hauek, gorago esan bezala, ez dute ezertan goibeltzen karmeldarrak eginiko lan erraldoia. Zer-bait itxusia eta salagarria aipatu beharko balitz liburu honen kontura, berriz,

horixe da liburuaren karrikaratzeko egon diren arazo ugari. Azkenean atera da kalera, gu guztion zorionerako, alabaina, bertso bibliografia hau liburu dendetan egon ahal izateko osak paratu dituzten erakundeen artean hutsune deitoragarriak ikusi egiten dira. Denok dakizkigunak honako lan funtsezko eta bikain batekin zotuzkatzeko prest ez badaude, gauza filuseagoekin nolatan lagunduko digute diruz? Eta oraino holakatzen direnak badira... zertan harritu baina?



ne txiki batzuk aipatzeak Urkizaren lana ez duela ezertan lurrinduko. Badira argitalpen batzuk bibliografian Urkizak aipatzen ez dituenak eta euskal bertsoak dituztenak. Ohi bezala, hauek Nafarroakoak dira. Jasotzen ditu Urkizak Nafarroako EAJk Iruñean 1984-1986 bitartean atera zuen *Amaiur* aldizkarian agertu ziren bertsoak. Ez dizkigu jasotzen, ordea, Nafarroako EAJk 36ko gerra aurretiko urteetan atera —hau ere Iruñean— *Amayur* aldizkarian agerturiko bertso mordoa. Hori de-

etorri ahalean

Patziku Perurena



Ongiez etimologikoak

ASIA: «Mitoak aparte, ASIA hitza asierazko *açutik* etor daiteke, eta 'sortaldea' esan nahi du; EUROPA, berriz, asierazko *ibi* edo arameozko *erebetik*, eta 'arratsa' esan nahiko luke». Beraz, argiaren bukaeran, *arratsean*, bizi gara europarrok? Lekutan gelditzen da gure argitasuna? Edo: argirik ezak, arratsak, argiagotzen ote gaitu? Auskalo.

HEKATONBE: Jainkoari ehun idi (*hekatom* = ehun; *bois* = idi) opaltzeari deitzen zitzaien hekatombe. Ondoren edozein opari handiri deitu zioten. Gaur egun, heriotz pila ikaragarria sortzen duen edozein txikizori deitzen diote, batez ere kazetariek. Badirudi errebelatu egin direla gure jainko zaharrak. Haiek ez zuten jaten gure (idi) oparirik, eta guk ere ez dugu jan nahi haien (jende) oparirik. Ez al litzake askoz zuhurrago izanen, elkarri oparirik batere ez egitea.

ISONIMIA: Hiritar ororen berdintasuna, legekidesuna adierazten du. *Gure demokrazia* ditxosozkoaren izen zaharra. Abeltzain indoeuroparrek (eta heleniarrek hala ziren) barrutietan sailkatzen zituzten larreak, eta larre sail bakoitzari *nomós* deitzen, eta nork bere saileko eskubideari *nómos*. Baina, *nómos* sustantiboari lotuago dago Egiptoko *nomoa*: administrazioa antolatzeke banatutako larrea, alegia. Larretan sailkatutako auzo bakoitzeko buruari, *nomarkho* deitzen zioten. Gero, herrigunetako (demo) buruzagiari *demarkho*. Beraz, euskal demokrazian, *alkate* baino aproposago ez al litzake, *demarko* erabiltzea? Oso fonetika gurea baitu *demarkok*: beharko!

METEKO: Grekeraz, etorkina, hiritarturiko atzerritarra zen. Askok ziren Heladen: Ate-

nasen, Periklesen garaian, biztanle libreen %40a. Eskulanean eta merkataritzan aritzen ziren. Libreak izan arren, ez zuten hiri eskubiderik. Zenbat godo, moro, jito, judio, hirieskubide gabeko izan ote da gure artean. Harrapa itzazu orain! Zer, izan ere, gaur hiri-eskubide gabe uzte hori baino hobetik, bihar nonbait hiri eraikitzaile bihurtzeko.

BARBARO: Hala dio Herodotok: «*Egiptoarrek, hain zuzen, beren hizkuntza berekoak ez direnei deritzete barbaro*». Eta gero berak simetria berbera darabil: «*traziarrek, szitiarrek, pertsiarrek eta lidiarrek eta ia barbaro guziek*». Heladeraz mintzo ez zen guzia «barbaro» harentzako ere. Hurrena latina ez beste guzia izanen zen hizkera «barbaro». Aimeric Picaudek ere, «*lingua barbara*» esan zuen guregatik 1130 aldera. Jimeno Juriok ongi argitu duenez, ordea, paper zaharretan euskaragatik esaten den «*bárbaro, vulgar, rústico*» horrek, hain juxtu, gutxiengo letratu batek ez beste guziak zerabilen hizkera «korrientea» besterik ez zuen adierazten.

EGIPTO: Heleniarren ustez, Egipto da munduko herririk zaharrena. Hain zuzen Egipto eta Libia (gaurko Afrika) geografiz eta mitoz, elkarri lotuak azaltzen zaizkigu. Heladeko heroi askoren jatorri da Egipto. Baita jainko gehienena ere. Denbora joan ahala, Egipton jainko nahastea sortu zen. Gehienek irudi zoomorfoa zuten ezaugarri, eta honek totemismo afrikarra adieraz lezake. Badirudi, *Egipto* deitura Menfis izen sakratutik datorrela: *Heka-Ptah*; babilondarrek *Hikuptah* deitu zioten; heleniarrek, berriz, *Aigýptos*, eta «izpiritu hilezkorren tenplua» esan nahiko luke. Beti sumatu izandu dut ijito usain ikaragarria, euskal erlijio eta sineskeria orotan.

Ziria

• Motxorrosolo •

Ezkila

Zorra kitatuz edo, hurrengoan Baztanen orri hauen arduradunek antolaturiko munstra. Egiazko ezkila beste komunikabide batena izan da. Periodikua leituz ilustratzen omen gara, hedabide horretan fitxik ez antolatzaileaz. Ohikoa bihurtzen ari da.

Jesus Mari Bengoetxea

NAFARROAKO JAIALDIETAKO ZUZENDARIA

«Kultura ekintzak une gozoan daude Nafarroan»

Bihar amaituko da Nafarroako Jaialdien hogeigarren aldia Goran Bregovicen Ezkontza eta hiletetarako banda-ren emanaldiarekin. Gaur Marta Sebastyen —'The English patient' filmeko kantaren abeslaria—kantariaren Muszikás taldea izanen da, baina uztailaren 25ean Enrique Morentek eta ahots bulgariarrek aurtengo aldiari hasiera eman ziotenetik hainbat ekitaldi izan dira.



• IÑAKI VERGARA

soslaia

Jesus Mari Bengoetxea Miranda 52 urteko iruindarra da. Hezkuntza Zientzietan lizentziatua, Nafarroako Gobernuarentzat egiten du lan Kultur Ekintza zerbitzuan 1999az geroztik. Lehenik ere, 1988tik 1991ra lan bera egin zuen; Nafarroako Jaialdien antolakuntzan lehendik ere bazuen esperientzia, beraz.

Uztailaren 25etik ikusgai eta entzungai izan dira hainbat ekimen Iruñeko Ziudadelan (bihar izango dira azkenak). Erakusketak, hitzaldiak, zinema emanaldiak eta musika ugari izan dira Ziudadelako zelai eta eraikinetan.

1981. urtean hasita, hogeigarren aldia dute aurten Nafarroako Jaialdiek. Erriberrin hasitako ekimen hau, hainbat heritatik pasatu ostean, Iruñera etorri da, eta bertan auditorio berria egiteko denez, badirudi urte askotarako etorri direla jaialdiak Nafarroako hiriburura.

JESUS MARI BONGOETXEA Vianako Printzea erakundeko kide eta Kultur Ekintza zerbitzuko zuzendaria da, eta Nafarroako Jaialdien antolakuntzan bete-betean ibiliko da bihar arte. Urtean zehar ezer gutxi egin eta udan kultura ekitaldi gehiegi izatea leporatu izan zaio Nafarroako administrazioari, baina gure elkarrizketatua ez dago batre ados.

■ Noiz hasi zineten Jaialdiekin?

1981. urteko udan egin ziren lehen aldiz Nafarroako Jaialdiak. Hasiera hartan, Erriberrin egiten ziren, bertako jauregi ospetsuaren inguruak aprobetxatuz, baina lau zapabost urte geroago jaialdiak herrietan sakabanatzea erabaki zen, eta aurten arte hala egin dugu.

«Hasieran Erriberrin egiten ziren jaialdiak; gero, herrietara zabaldu zen ekimena, baina aurten Iruñera ekarri dugu, eta hemendik urte gutxi barru, auditorio berriaren eta Ziudadelaren artean egin ahal izango dugu, leku ezin hobetan»

■ Aurten Iruñean bakarrik egingen dira, zergatik?

Zenbait herritako jendea haserretu egin zen erabaki hau ezagutzera eman gurenean, baina uste dut beste aukerarik ez zegoela; jaialdiak gero eta indartsuagoak izateko toki batean finkatu behar zirela garbi zegoen, eta Iruñeko Ziudadela barruko belardi eta eraikinak baino toki aproposagorik dagoenik ez dut uste. Gainera, urte gutxi barru Iruñeko auditorioa ere eraikita izango da, eta ekitaldiak Ziudadelaren eta auditorioaren artean egin ahal izatea zoragarria litzateke. Benetako balorazio bat egiteko goiz izan daitekeen arren, Iruñera etortzea erabaki zuzena izan dela esan daiteke.

■ Garai batean Nafarroako Jaialdiak existitzen ez zen pastel baten ginga zirela esaten zen. Zein iritzi duzu honen inguruan?

Duela urte batzuk hori esateak zentzua izan zezakeen, jaialdi hauek ere Nafarroan kulturarekin lotutako gauzen eskasia zegola-eta hasi baitziren, baina gaur egun kultura eskaintza ugaria da Nafarroan. Kultura ekintzak une gozoan daude Nafarroan: egun hauetan bertan. Herriz herri izeneko ekitaldiak egiten ari dira, Nafarroako herri txikietan antzerki eta zinema ikuskizunak eskainiz. Gainera, kultura eta turismoa batzeko asmoz Kultur programa ere martxan da, Lizarran,

Azkoienean, Tafallan eta Lodosan Nazioarteko Folklore Jaialdiak ere oraintxe egin dira, eta urtean zehar ere teatroa, opera, bideo-lanen erakusketak, Julian Gaiarre eta Pablo Sarasate lehiaketak eta beste hainbat gauza egiten dira.

■ Jaialdiak toki bakar batean biltzeaz gain gai bakar baten ingurukoak dira ekitaldi gehienak; zergatik?

Aurtengo jaialdien leloa Ekialdera begira bizi den Europa da, eta herrialde hauen kulturari eskaini nahi izan diogu jaialdi hauen hogeigarren ekitaldia, batik bat Balkanetako herriei. Oso inguru aberatsa da kulturari dagokionez, lurralde hau hainbat kulturaren topaleku izan baita mendeetan. Ez litzateke zilegi gerra kontuak aipatzeko bakarrik gogoratzea Balkanekin; inguru hartan nahasketa etniko-kulturala izugarria da, eta gerrak horren ondorioz etorri badira ere, benetan duten aberastasunari ere bere garrantzia eman behar zaio.

■ Aurten sartutako aldaketekin asmatu egin dela uste al duzu orduan?

Zalantzarik gabe; duela hamar egun Enrique Morente ahots bulgariarrekin aritu zenean, 1.300 lagun Ziudadelako inguru ezin hobean ikusita ezin da bestelakorik pentsatu. Kol Simcharen klezmer eta jazz musikatik hasi eta Esma Redzepovaren musika errumaniar zirrargarriaren ondotik talde ugari entzun ditugu, egin diren hitzaldi, erakusketa eta zinema emanaldiez gain; benetako arrakasta izan da aurtengoa, eta gaur Muszikás eta bihar Goran Bregovic ikus ditzakegu oraindik; nik uste dut ezin hobea izango dela aurtengoa.

■ Jendearen erantzunak gustura utzi al zaituzte?

Badakizu udan jende asko oporretan izaten dela eta kanpora joaten dela, baina Ziudadela hiri erdi-erdian dagoen gune berde ezin hobea da, eta jende asko pasatzen da bertatik. Ekitaldi zenbaitetara jende ugari inguratu da, gaur eta bihar ere gainezka izango da jendea, baina beste batzuetan guk nahi baino gutxiago izan da. Datorren urtean gehiago.

→ Asier Legarda-ereño



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Festa eta heriotza

Munduan, baita gure mundu txikian ere, inork eskatu gabeko ezbehar gehiegi gertatzen dira, nonahi eta noiznahi, errepide edo mendian. Gizakiok ez genuke, beraz, zerrenda handitzeko ahaleginik egin behar, horietako asko eta asko etorriko baitira, tamalez, inork deitu gabe. Ez da hori, jakina, hilketak salatzeke arrazoi nagusia, beste bat baizik, baina azken egunetan irakurri ditugunen artean aipatu gabe gelditu den bakarrenetakoa denez zutabetxo honetara ekarri nahi nuen.

Azken bolada honetan festa eta heriotza uztarturik etorri zaizkigu udako egunkarietan. Hemendik aitzina lehenbizikoak, seguru, toki handia hartuko du, herri gehienetako festak ospatzeko daudelako. Bigarrenari dagokionez, azken asteotan ikusitakoak ez digu esperantzarako zirrikitu handirik uzten.

Politikoen oporraldien hasieran desio bat: mendian edo uretan egoera honetatik ateratzeko moduak asmatzeko ahaleginak egin ditzatela. Eta oporrik hartzen ez dutenei, faborez, behingoz har dezatela gehienok bihotzez eskertuko diegulako.

gure aukerak

MUSIKA

- **Erronkari:** Gaur, 20:30ean, Maite Beaumon sopranoak gazteluko ermitan kantatuko du, Pedro Rodriguezen pianoaren laguntzaz.
- **Lizaso:** Igandean, 12:30ean eta 18:00etan, Orgiko hariztian Ad Libitum ganbera taldeak *Mira naturaren erdian* lana eskainiko du. Euria izanez gero, Lizasoko elizan egingen dute.
- **Uztarroze:** *Elizetako sonoritatea* zikloaren baitan, Jose Luis Etxetxiapiak organoa joko du igandean elizan, 12:30etik aurrera.
- **Artaxona:** Igandean Armonia Navarra taldeak jotak kantatuko ditu plazan, 13:30ean.

ANTZERKIA

- **Atarrabia:** Gaur, 22:15ean, TEN Pimpilinpauza taldeak *El origen del arco iris* lana eskainiko du Antso VI.a Jakituna plazan.
- **Atarrabia:** Asteartean, 18:00etan, *Kiriko oilarra eta herri txerrikumeak* haurrentzako antzezlanaren taularatuko du Kollins Klown taldeak Martiket igerilekuan.

BERTSOLARIAK

- **Bera:** Bihar, 20:00etan, Errekalde ostatutik abiatuta, bertso poteoa egingen dute Sustrai Kolina, Igor Elortza eta Estitxu Fernandezek; gaijartzaileran Jon Abril ariko da.

DANTZARIK

- **Tafalla:** Gaur, 20:00etan, Ardantzeta taldeak dantza emanaldia eskainiko du Foruen plazan.
- **Agoitz:** Bihar Muthiko Alaiak taldeak dantza emanaldia

eskainiko du pilotalekuan, 22:30etik aurrera.

- **Elizondo:** Bihar Duguna taldeak dantza emanaldia eskainiko du pilotalekuan, 22:00etatik aurrera.

ERAKUSKETAK

- **Elizondo:** Ana Maria Marinen margolanak ikusgai daude Elizondoko Bergarenean etxean.
- **Elizondo:** Josetxo Lamyren lanak M. Berekoetxea etorbideko lokalean daude ikusgai

abuztuaren 31 arte, lanegunetan 18:00etatik 21:00etara, eta larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

- **Ziga:** Jesus Montesen margolan erakusketa paratu dute Zigaurre auzoan, irailaren 3a arte, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.
- **Elizondo:** Irailaren 3a arte, Tomas Sobrinoren pintura lanak ikusgai izanen dira Jaime Urrutia kaleko 23 zenbakian. Goizean 11:00etatik 13:00ak arte, eta


arratsaldean 19:00etatik 21:00etara.

- **Oieregi:** Bertizko jaurerrian Antzinako bizimoduaren irudiak erakusketa ikus daiteke irailaren 3a arte, 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era.

BESTELAKOAK

- **Erriberri:** Gaur, 20:00etan, dastaketa ikastaroa egingen dute Nafarroako Ardoaren kofradian (Rúa Mayor, 4). Lekua hartzeko deitu 948-210347 telefonora.

• IÑAKI VERGARA



Bukatzeak

Ubideak 1.245 metro ditu. XVIII. mendean eraiki zuten, Zubitzatik Iruñera ura eramateko. Egunduz erabiltzen, baina zutik dirau. Gainera, aurpegia garbitu berri diote, A-15 autobidetik pasatzen diren auto gidariek hagitz ongi ikus dezaketenez. Metro bakan batzuk besterik ez dira falta Noaingo akueduktua inoiz baino apainago gera dadin. Noainen bertan dago Nafarroako aireportu bakarra ere. Espero dugu hegazkin malapartaturen batek istripurik ez izatea, ez dezan gure akueduktua hondatu. 1521eko ekainaren 30ean izan zen istripurik Noainen, eta bertan 5.000 bat nafarrek galdu zuten bizia. Komentario hau borobiltzeko, arestiko datu pilaketatik bizitzaren parabola egin beharko genuke. Gehiegizko, ezta? Erran dezagun, besterik gabe, Noaingo akueduktuko garbiketa lanak bukatzeak direla.